

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Hilda ere



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



**Patri maitea**  
HASIER ETXEBERRIA

Alberdania, 2003

Jurnalista ustez graziosa berriz ekinean: orduko hartan aski ez (ARGIA, 2010-09-26: “irakurketa xalo xamarra, piperrik ga-bea” omen *Mugetan* eleberriarena), Hasier Etxeberriaren beste liburu bati heldu dio oraingoan, zer eta omenaldia egiteko edo. Ez dira gutxi utzi dizkigunak, tartean, gustura irakurtzekoak, Damian Arrutirenak. Artikulu bilduma aukeratu, ordea, kritikari arropak beztitu dituen honek, auskalo izokinaren sindromeak jota. Bost urtez, 1999-2003, hamabostean behin, gutun itxurako zutabe bat *Gara* egunkarian. Edo zutabe itxurako gutun bat. Patri delako bati (“inork ez baitu jakin ahal izango zu nor zaren”). Dena delakoarekin: Etxeberriaren kezkek agertzen dituzte beren luze-zabalean.

Zein dira kezka horiek, bada: pentsalari ponposoak, txikion atsegin hartze eza, literaturaren luxua, Frantziaren handitasuna, Iparraldetik etortzen zaizkigun ikasgaiak. Eta, batez ere, aspaldion berritsu dabilzan gure mutilak (“argazkietan agertzen diren kaputxadunak beti mutilak direla baitirudi”). Ibarretxe planaren garaia da, Korta, Lluch, Pagazaurtundua, Barandalla, *Egunkaria*-ren itxierarena. Besteren gaineratik, ETaren jardunak aztoratzen du zutabegilea: “Ordaindu beharreko prezioa honelakoa izanik, kasik ez baitu merezi ezer lortzeak”. “Gure” posesiboak ematen dio min: “Gureak kezkatzen nau ni, gure jendeak egiten dituenekin dut sufritzen, izan Ertzain edo izan ETako. Zer egin dugu halako salbatzaileak merezi izateko?”. Azken batean, Etxeberriak barru-barrutik sentitzen duena, ez ote den Segundo Mareyk gordeta zeukan min hura: “Bahitu

zuten terroristak bere ezpal berekoak izatea”. Baina mezua da garbia: “Indarkeria oro eten eta abertzaleen batasuna eraiki behingoz”.

Hori bai, ezagun dugu: lagun asko galdu ohi ditu zutabegileak, bere lanari zintzoki heltzen dionean. Halaxe dio bildumako azken gutunak: “Patri maite-maitea, besteren batek ere irakurtzen ditu gure arteko gutun hauek eta ez zaizkio batere gustatzen, antza”. Antza, dio, ze katxondoa. ETaren *Zutabe* batean aipatu zuten Etxeberria, ez loreak jasotzeko gainera. Azala ordurako gogortua zuen, ordea: “Neuk entzunda daukat ETAkoa naizela, troskoa naizela, PNVkoa naizela, anarkista naizela, HBkoa naizela, erosita nagoela”. Eta *Gara* egunkariko zutabea utzi arren, eskainia zigun irakasbidea: “Ez dagoe la aske izateaz besteko biderik”.

*Mugetan* eleberriaren iruzkina irakurrita (“gorabehera urrikoa, zurrunezia, konparazioz bete”), zera erantzun zidan: “Bizi banauk, 20 urte barru helduko zieat hik idatzitakoei, eta bi hitz esango, entzun behar ko dituanak (bizi bahaiz)”. Entzun espero ditudanak. Konplituko baita, seguru, Oteizak Etxeberria berari esan ziona: “Hilda ere ez zaituztet utziko bakean”. ■



Hasier Etxeberria  
*Canales* idazlea  
(Elgoibar, 1957-2017).